

## **Doako bi formakuntza-saio Andoaingo merkatarietzat beraien negozioen**

### **jarraipena planifikatu dezaten**

Erretiroa gertu duten eta beren negozioa ixtea nahi ez duten establezimenduen jabeek aukera izango dute beraien negozioaren jarraipena eta eskualdatzea modu planifikatuan prestatzeko.

Apirilaren 21ean eta 28an, eta maiatzaren 5ean, Andoaingo Urigain Etxean, doako hiru formakuntza-saio antolatu dira gai hauen inguruan sakontzeko:

- Apirilak 21: ondorengotza programaren aurkezpena.
- Apirilak 28: erretiroari buruz jakin beharrekoak.
- Maiatzak 5: erreleboa planifikatzen.

Lehenengo aurkezpen-saioa 13:15etatik 14:15etara izango da, eta beste biak 13:15etatik 15:15etara izango dira, leku berean. Saio hauetan izena emateko, ondorengo formularioa bete behar da:

<https://forms.gle/kvuRAuEpBqNJQw1f6>

Datozen hilabeteetan, lurraldeko gainerako udalerrietan antolatuko dira aurrez-aurreko saio hauek berriro adituen eskutik, herri bakoitzeko merkatariari bertaratzea errazteko. Hurrengo bi saioen kokalekuari buruzko informazio gehiago datozen asteetan partekatuko da.

Formakuntzez gain, Beterri-Buruntza Mankomunitateak doako aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen du etengabe, pertsona bakoitzaren erritmorra eta beharretara egokituta. Hitzordua eskatzeko [enpresa@beterriburuntza.eus](mailto:enpresa@beterriburuntza.eus) helbidera idatzi daiteke, edo 943 244 523 telefonora deitu.

Andoaingo Udaletik zein Mankomunitatetik deialdia egin diete bertako merkatariari gerturatzeko; izan ere, talde txiki eta erosoetan landuko dira negozio bat eskualdatzeko jakin beharreko gakoak, eta espazio egokia da bakoitzaren behar zein kezka partekatu ez ezik, erantzuna ematen hasteko.

Ondorengotza egitasmoko *“zuk duzu giltza, aldatu eskuz”* mezuaren bitartez merkatariak ahaldundu nahi dira, elkarrekin herriguneak zein industrialdeak bizirik mantentzeko.